



IDEIA ZAPARRADA SOINUEKIN

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Ariketa hau ideia zaparrada gisako bat da irratsaiorako gaiak biltzeko. Taldeak soinu eta zarata ezberdinak entzungo ditu eta horiek zer gogorazten dieten eztabaidatu. Soinuen erlazioak egiteko ariketa bat da.

AIM OF THE ACTIVITY

Lehenago pentsatu gabeko ideia berriak sortzea da ariketaren helburu nagusia. Horretaz gain, taldeak ezohiko soinuen aurrean entzumena zorrozteko trebatzeko ere balio du.

EXPECTED OUTCOMES

Gai sorta zabal bat.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Ez da trebakuntza berezirik behar.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Soinu fitxategi bat beharko duzu. Soinuak ez luke garbia izan behar. Ariketari etekin handiagoa atera dakioko soinuek ideiak ateratzeko adina tarte uzten badute.

LENGTH

10-20 minutuz

MATERIALS

- Bozgorailuak soinuak entzuteko - Paper handi bat edo arbela - Soinu fitxategia

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Parte hartzaile guztiek adi-adi entzun behar dituzte soinuak, eta horiek gogora zer ekartzen dieten azaldu. Hezitzaileak ideia guztiak idatziz jartzen ditu. Entzun ostean, taldean eztabaidatuko da zein ideia diren erabilgarriak irratsaio baterako. Ideia sorta horretatik at dauden gaiak ere atera daitezke.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

10 gehienez ere.

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

Kontu izan, helburua ez baita zein soinu mota erreproduzitu diren asmatzea. Ariketa erlazioak egitean datza, burua ideia berrietara zabaltzeko. Ideia zaparrada gisako bat da.

VARIATIONS

Bakoitzak bere ideiak norbere kabuz idatz ditzake.

TIPS FOR TRAINERS

Soinuen aukeraketa oso garrantzitsua da. Gure webgunean adibide bat aurkituko duzu. Soinu-arte pieza bat edo bereizgarri bat ere erabili daiteke. Soinuek ez lukete garbiegiak izan behar

PARTICIPANTS

Parte hartzaileek ez dute aparteko jakintzarik behar, edozein talderekin garatu daiteke.

ANALYSIS AND EVALUATION

Idea bilduma eztabaidatu. Horiei buruz hitz egitean ideia gehiago ere atera daitezke.

SCHEDULING

Soinu tarte labur bat edo luze bat izan daiteke. Iraupena taldearen arretaren araberakoa izango da. Nahi duzunean gera dezakezu soinu, jadanik nahikoa ideia atera direla irudituz gero.